

Euskaltzaindia, ofiziala

Zeruko Argia, 689. zk., 1976-05-23: 5.

Badira ofizialtasunean ere mailak.

Euskaltzaindiarena bat.

Koroitu dutela... ba Kristori ere jarri zioten koroia hura.

Egia da *Boletín Oficial* paperetan aitajaundua eta bataiatua eta oihaldua eta sehaskatu dutela; biana hori ez da alimentua, zeren aur honek behar du, bataioko uraz gainera titi pixka bat artu; aize pittin bat atsartu, argia xulo batetik ikusi, eta subnormalik nahi ez badugu, behar du aur honek noizean behin familiaren abotsa entzun; eta gertatzen da, hoietako dexente espetxe ofizialetan dauzkanez, nahi lituzkeela ikusi, baina kutsatuko ote den beldur dira nonbait eta ez diote itzez edo kartaz edo liburuz jantzita ere espetxe ofizialetara urbiltzen uzten.

Honelaxe daude gauzak.

Orain, ordea, ofizialean badu behintzat papera.

Eta aurrak zer nahi egin, beti da laguntza.